

ELIKA, ERA-Net SusAn-en ikerketa-proiektuen bigarren mintegian

ELIKA eta ILVO (<https://www.ilvo.vlaanderen.be/language/en-US/EN/Home.aspx>) (nekazaritza, arrantza eta elikadurarako ikerketa-institutua, Flandria) animalia-ekoizpenaren sistema jasangarrien esparruko ikerketa-proiektuen bigarren mintegia antolatzen ari dira, EZK (<https://www.government.nl/ministries/ministry-of-economic-affairs-and-climate-policy>)-aren laguntzarekin (Ekonomia eta Klima Aldaketako Ministerioa, Holanda); izan ere, eurak dira ERA-Net SusAn-en Komunikazioaren Estrategia eta Informazioaren Trukearen 2 eskualde arduradunen ordezkariak.

Parte-hartzaileak

Mintegia 2019ko apirilaren 9an eta 10ean izango da, Wageningengo Unibertsitatean (Herbehereak), eta honako hauek hartuko dute parte: SusAn-eko bazkideek eta SusAn-ek eta Europako Batzordeak elkarrekin finantzatzen dituzten 14 ikerketa-proiektuen komunikazio-koordinatzaileak eta arduradunak.

Ekitaldearen garapena

Mintegiko lehen egunean, 14 ikerketa-proiektuek epe ertaineko emaitzak aurkeztuko dituzte lau modu ezberdin eta berritzailetan (posterra, liburuxka, aurkezpena eta pitch-ak). Erakutsiko dute euren proiektuek nola lagunduko duten ERA-Nets-en helburuak betetzen eta zer-nolako eragina izango duten jasangarritasunaren 3 ardatzetan.

Bigarren egunean, berriz, sistema jasangarrien arloan erreferentea den abeletxe bat bisitatuko da eta 3 tailer dinamiko egingo dira 3 partaide motentzat:

1. **Stakeholders:** ELIKAk bideratua, proiektuetako eta SusAneko interes-talde nagusiak tartean sartzeko praktikarik egokienak identifikatzeko.
2. **Komunikazioa:** ILVOK bideratua, ikerketaren emaitzak hedatzeko sare sozialen bidez.
3. **Ikerketarako Agenda Estrategikoa:** BLE (https://www.ble.de/EN/Home/home_node.html)k (Nekazaritzarako eta Elikadurarako Agentzia Federala, SusAnen koordinatzailea) bideratua, SusAn-eko bazkideek animalia-ekoizpeneko sistema jasangarrien arloko I+Bren Agenda Bateratu Estrategikoaren proposamena jorra dezaten.

Programme (https://investigacion.elika.eus/wp-content/uploads/sites/5/2019/03/SusAn_midterm-seminar_agenda_web-Elika.pdf)